



FLUXUMETRIA

Zer da proba hau?

- Proba sinple bat da, eta EZ DA MINGARRIA: txiza egin behar da fluxometroa deitzen den tresna batean.
- Horren emaitza grafikoari esker, analizatu ahal da zenbat txiza-kantitate kanporatu den, zer abiaduran kanporatu den eta zenbat denboran.

Zer egin behar dut probaren aurretik?

- Ez da beharrezkoa baraurik etortzea.
- TXIZA EGITEKO GOGOAREKIN etorri behar duzu.
- Saiatu TXIZARIK EZ EGITEN proba egin aurreko bi orduetan.

OSO GARRANTZITSUA

- Proba egin aurreko bi orduetan bi edo hiru baso bete ur edan, txizagura izateko.

Nola egin behar dut proba?

- Txiza egin beharko duzu, bakarka eta ohi duzun jarreran, neurketa egiteko prestatuta dagoen komun-ontzi batean
- Saiatu lasai egoten eta ez egiten ahalegin abdominal gehiegizkorik.
- Amaitutakoan, makinak txosten bat sortuko du.

Zer egin behar dut probaren ondoren?

- Ez duzu ezer berezirik egin behar; betiko bizimodua egin dezakezu.

Non egingo didate proba?

- ARABAKO UNIBERTSITATE OSPITALEKO Kanpo-kontsulten eraikinean, 7. solairua - Urologiako Zerbitzua